



Sexu erromanikoa



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Zamora, X. mendearen amaiera. Duero ibaiaren ertzean eta hiriko harresietatik kanpo Santiago de los Caballeros eliza eraiki zuten. Eliza barruko kapiteletan askotariko eszenak irudikatu zituzten, besteak beste, eduki sexualak zituztenak: orgia bat, emakume biluzi bat gizon baten zakilari eusten... Cevantoseko (Kantabria) San Pedro kolegiatiko kapiteletan, Teza de Losako (Burgos) San Nikolas elizan eta beste eliza erromaniko askotan ere antzeko sexu eszenak zizelkatu zituzten.

Orain arte hainbat hipotesi egin dira irudi esplizituen helburuaz eta, horien arabera, erliebeek bekatua irudikatuko lukete, saihestu beharreko jardunak, eta, beraz, kapitel horiek kastitaterako deia izango lirateke. Baina Isabel Mellén arte historialari gasteiztarrek oso bestelako ikuspegia jaso du *El sexo en tiempos del Románico* (Crítica) liburuan. Mellénen ustez, erliebe erromaniko horiek interpretatzean aurreiritzi eta tabu garaiki-deak erabiltzen dira eta berak ikuspegi naturalago baten alde egin du. Sexua uste baino normalizatuagoa zegoen garai hartan, batez ere nobleen artean. Historialariak noblezia ikertu du nagusiki bere lanean, haiek baitziren eliza erromaniko asko eraikiarazten zituztenak. Eta haiek ziren, beraz, tenplua apainduko zuten irudiak aukeratzen zituztenak. "Ohitura sexual oparoak zituzten, haurrak izateak leinua indartzen zue-



Emakume bat alua erakusten Cervantoseko San Pedro kolegiatiko absideko kapiteletako batean.

lako. Familia norbanakoaren gainera zegoen eta, ondorioz, sexua erdigunean zegoen". Irudi horiek nobleziaren balioketekin lotzen ditu, haurrak, oinordekoak izateko beharrezekin. Horregatik irudikatzen dituzte maiz haurdun dauden emakumeak edo erditze eszenak.

XI. mendean iritsi zen inflexio puntua. Orduan sortu zen elizaren muturreko zorrozkeria. Kleroaren gutxiengo bat sexua bekatuarekin lotzen hasi zen eta "ideia hori pixkanaka gizartean sartzen joan zen, gaur egun gorpuztasunaz dugun tabu horretara iritsi arte". Genitalitate

eguneroko kontua zela dio arabarrak, Erdi Aroan intimitateaz egun dugun kontzepturik ez zutelako.

Aldaketa hura ez zen bat-batekoa izan. Hasieran, herritarrek ez zieten kleroko kide horiei jaramonik egin; alderantziz, barre egiten zieten, garaiko literaturak jasotakoa kontuan hartuz gero. Baina sexuaren aurkako gurutzadak bere helburua lortuko zuen. "Ohitura sexualak aldatu nahi dituen eta bere boterea handitu nahi duen elizako nukleo txiki batean abiatu zen, eta, azkenean, mundu guztiaren ohean sartzea lortu zuten". ●



EARTH.COM

Mamutak ehizatzen teknika

Berkeleyko unibertsitateko (Kalifornia, AEB) arkeologo talde baten arabera, ezkerreko irudian ageri den eszena ez litzateke zuzena. Hau da, gizakiek ez zituzten lantzak jaurtitzen mamutak eta beste ugaztun handi batzuk ehizatzen. Horixe zen orain arte zabalduen zegoen hipotesia, filmetan, bideojokoetan... ikusi dugun teknika. Baina *Plos One* aldizka-

rian argitaratutako ikerlanak dio lantzak pika moduan erabiltzen zituztela eta lurrean bermatzen zutela makil luzearen oinarria. Mamuta erasotzeko hurbiltzen zenean, pikaren harrizko punta zorrotza gora jasotzen zuten. Hala, gizakiek beren indarra erabili ordez, mamutaren beraren indarraz baliatzen ziren arma haren gorpuztean sartzeko. ●